

Mendea luzea, zabala, adartsua da. Euskal Herrira mugaturik, hogeigarrenak bide eta bidagurutze amaigabeak utzi ditugure oroimenean. Bertsoaren esparru erlatiboki txikian ere, urte osoa beharko genuke bertsolaritzak jaulki duen emaitza guztia berritzen. Inoiz oihu, sarritan auhen, hemen aldarriak bakarrik jaso ditugu, eurok ere hautatze nahitaez estuan bereziak eta, hori bai, Euskal Herri osoa ordezkatzeko dutenak. Gehienak bertso jarriak izanik, batzuetan ohartuko zarete bat-batean sortuak direla. Nola kantatu du bertsolaritzak gure hogeigarren mendeko ibilera politikoa? Aldarrien eragile maizkorrenak oinazea eta nahigabea badira ere, goza ezazue bertsolaritzak askotan saminez, batzuetan amorrus eta beti ere dotore kantatu digun mendearen radiografia entzunez.



tel. 943 260 755  
www.lanku.com

978-84-936702-2-1



9 788493 670221

129127

MENDE BATEN ALDARRIAK XX. EAN JARRIAK

# MENDE BATEN ALDARRIAK XX. EAN JARRIAK

Xabier Amuriza  
Jon Maia



# MENDE BATEN ALDARRIAK XX.EAN JARRIAK

**Gidoia**  
Xabier Amuriza

**Bertsolariak**  
Xabier Amuriza  
Jon Maia



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

© Xabier Amuriza  
© Lanku Bertso Zerbitzuak S.L.

I.S.B.N.: 978-84-936702-2-1  
L.G.: SS-1643-2008

Argitaratzailea:

Lanku Bertso Zerbitzuak S.L.  
Astigarraga bidea 2, 2. Enpresa zentroa  
20180 Oiartzun

e-maila: [lanku@lanku.com](mailto:lanku@lanku.com)  
<http://www.lanku.com>

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa, jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak ([www.cedro.org](http://www.cedro.org)) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

LIBURU OGI LIBURUTEGIAK	
REG. DE BIBLIOTECA MUNICIPALES DE BILBAO	
Erreg. Zk. / Reg.	166172
Sar. Zk. / Entr.	179123
Data	29/04/09
Liburu / Bibliot.	BCB
Ezan. / Sig.	129927



## ESKER ONAK

Gipuzkoako Kutxaren Fototeka  
Euskadiko Filmatagia  
Xenpelar Dokumentazio Zentroa  
HABE  
"Hitzetik Hortzera"ko lan taldea  
Digitalak  
Eibarko Udal Artxiboa  
Tomas Zumalakarregi museoa  
Luis Elberdin  
Francisco Picardi  
Alfontso Irigoien  
Juan Joxe Agirre  
Niko Moreno

## Bertsolariak:

Basarri  
Txirrita  
Kepa Enbeita  
Iturzaeta  
Azpillaga  
Agirre  
Etxahun Iruriko  
Paulo Yanzi  
Iñaki Alkain  
Amezketako artzaina  
Otaño  
J.B. Otxalde  
J.M. Etxeita  
Anjel Markano  
P. Zabaleta  
Arrese-Beitia  
Xalbador  
Lopategi  
Uztapide  
Abel Muniategi  
Lazkao Txiki  
Elizanburu

*Oharra: Irakurle-entzulea noraezean ibil ez dadin,  
jakinarazi nahi dugu gidoi entzuna, funtsean, gidoi  
idatzia bera dela, baina era laburtuan, entzuketari  
dagokion moduan.*

## AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	9
GERNIKAKO BONBAKETA (Basarri).....	13
GERRA (Txirrita).....	15
VIVA ESPAÑA (Kepa Enbeita).....	17
ERREPUBLIKARI TXISTU (Anonimoa).....	19
GIZON BAT (Anonimoa).....	21
NORK EGIN DU GURE GALDE (Basarri).....	23
GOSETEA (Iturzaeta).....	25
FRANCO XAR HORI (Azpillaga).....	27
DISEKATUTA (Agirre).....	29
MUNDUKO GERRA (Etxahun Iruriko).....	31
AFRIKAKO GERRARENAK (Paulo Yanzi).....	33
FRENTETIK FRENTERA (Iñaki Alkain eta Amezketako artzaina).....	35
SIGMA (Basarri).....	37
AMERIKAKO PANPETAN (Otaño).....	39
BERANTEKO URRIKIAK (J.B.Otxalde).....	41
HAU NAHIBAGIA (Jose Manuel Etxeita).....	43
MARKANOKIN AMERIKETARA (Anjel Markano).....	45
AMERIKATIK OSABA JOSE BERNARDORI (Otaño).....	47
GURE ERRENTERI (P. Zabaleta).....	49
ARBOLA BAT ZAN (Arrese-Beitia).....	51
ORAIN BI MILA URTE INGURU (Txirrita).....	53
MUGAZ ERDIBITURIKO (Xalbador).....	55
HOIEN ODOLA (Xalbador).....	57
MUÑOZ GRANDES (Lopategi eta Azpillaga).....	59
MORCILLO (Uztapide).....	61
SARDINA ZAHARRARI (Jose Agirre).....	63
CANOVAS (Txirrita).....	65
CANOVASEN SEÑORARI (Txirrita).....	67
GUARDIA ZIBILEI (Lazkao Txiki).....	69
JOSEBA ARREGI (Lopategi).....	71
GUZIAK BAT (Elizanburu).....	73

## Hitzaurrea

Beti entzun izan dugu historia irabazleek idazten dutela. Euskaldunok ez gara, behintzat, geure historiaren idazle ugariak izan. Bertsolaritza, ordea, ahozkoa zein idatzizkoa izan daitekeen literatura mota, bere historia garaikidearen ispilu izan da gehienetan, garairik garai. Bertsolaritzak Euskal Herriaren egunerokotasunari zein hizki larrietako historiari kantatutakoa eta idatzitakoa geure memorian dagoen altxorra dugu.

Bertsolaria beti izan da bere garaiaren kronista. Begia zorrotz eta burua adi, umorez zein atsekabez, ikusi, ezagutu eta pairatu behar izan duenari beti kantatu dio, doinu triste zein alaietan. Horrelaxe iritsi dira, gure gozamenerako eta jakinduriarako, bertsolariak egindako hainbat bertso, gure egunetaraino.


Altxor horren eta memoria historikoaren balioaren jakitun, bertsoa bere horretan entzutetik haratagoko lana egin nahi izan dugu **Mende baten aldarriak XX.ean jarriak** izeneko honekin. Bertso bilduma bat baino gehiago da. Bertsoen kutxa zahar eta aberatsetik hautaketa jakin bat egin, eta Euskal Herriko XX. mendearen kronika soziala eta politikoa garatzen ahalegindu gara. Kronika honek balio erantsi bat ere badu, gainera: kronistak, bertsolariak, alegia, kasurik gehienetan, kantatzen ari diren horren lekuko edo protagonistak izan dira. Goseari kantatu dionak gosea pairatu du. Emigrazioari bertsoak jarri dizkiona emigrantea izan da. Eta horrelaxe gehienak: gerratik itzultitakoa, lan bortxatuetan aritutakoa, zentsura pairatutakoa, atxilo eramandakoa...

XX. mendean zehar, bertsolariak herri honetan izan diren gertakizun garrantzitsuenen aurrean burututako hausnarketak, kontakizunak, negarretik irria ateratzeko ahaleginak, testigantzak, barne sentimenduak...

denetariko bertsoak bildu ditugu honakoan, denak ere lan honetan jasoak izateko merezimenduaren galbahetik pasa eta gero, ez soilik, kontaktzen dutena gure historiaren testigantza delako, baizik bertso ederrak diren segurantz.

Zuzeneko hainbat emanaldi egin ondoren, bertsozaleen gustuko lana izan dela jakinik, DVD eta liburu euskarrietan argitaratu nahi izan dugu XX. mendeko bertso kronika hau. Bai baitakigu bere erabilerak gozamen hutsaz haratagoko helburua izan dezakeela: eskolarako langai izan daiteke, gure historiaren azterketen material osagarria, XX. mendea Euskal Herriarentzat zer izan den jakiteko bide zuzena... eta gehiago. Historia irabazleek idazten badute, gure lan xume honek historia irabazteko balio dezala. Izan ere, kantatzen jarraitzen duenari nekez esan ahal izango zaio galtzailea denik.

*Jon Maia*



## Gernikako bonbaketa

(Basarri)

*“Gezurrezkoa gertatu baitzen”*

“Gernika” izenak munduari Picassoren zezena bururatzen dio. Guri Gernika bera gogoratzen digu, Basarri gazteak 1937an, Frantziako Landesetako pinu-lanetik, hamalauko sortan honela kantatu ziguna.

Apirileko hilarekin zan, hogeita seigarrenean  
hain justu ere peri eguna astelehen arratsaldean.  
Kale-baserry, milaka anai gizatasun ederrean  
plaza inguruan arkitzen ziran lehengo ohitura zaharrean.

Kanpantorreko kanpaiak hasi ziran dinbili-danbala  
goiko piztien motor burruna entzuna zan berehala.  
Emakume ta ume gaixoak kurrizka zeriotela  
heriotzari igesi nahirik nora jo ez zekitela.

Puska dituzte gure herri polit, apain eta maitekorrak  
puska dituzte baserry txuri, gure kabi on, xamurrak.  
Ta zirtzildurik kaletan utzi, oh! euskaldunen hezurak  
Alemanitik gu txikitza etorritako maltzurak.

Ikusi zuten neurri gabeko pekatua zeukatela  
ikusi zuten hainbat kristau on odolustu zituztela.  
Ikusi zuten mundua kontra jeikiko zitzaietela  
eta orduan zabaldu zuten gorriak erre zutela.



## Gerra (Txirrita) "Ari naizela"

Urtebete lehenago, Txirrita zaharrak gerrari usaina hartu zion, nonbait, txapelketako bakar-lanean, gaitzat hain zuzen GERRA hitza entzunik, hiru bertsoetatik bi hauek kantatu zituenean:



Zenbat errezo egin izan det  
nere denboran elizan  
ta pozik nago ikusirikan  
pakian nola gabiltzan.  
Ni naizen bezain kobarderikan  
inor ezin leike izan  
semerik gerrá ez joateatik  
mutilzar gelditu nitzan.

Okasiua hara jendiak  
nola gerta litekian  
hobea degu gerratan baino  
bizi umore onian.  
Zenbait bezela ez naiz izaten  
fondetan eta kafian  
gerran gosiak baino nahigo det  
nahikua janez pakian.




## Viva España (Kepa Enbeita)

*“Hamarreko luzatua”*

Gerra aurrea, Errepublika tartean zela, beroa eta istilutsua izan zen. Mendearen hasieran leherturik, itsasgoran zetorren abertzaletasuna ere etengabeko kanpaina beroan zebilen eta Kepa Enbeitak Oñatiko mitin batean kantatu zuen:

“Viva España” didarka dagoz  
neuk bere “viva” dirautsat  
gorrotorikan ez dagolako  
nigandik Españarentzat.  
Katolikuok jakin dagigun  
zer diñon goiko Juezak  
“Besten gauzari bakian itxi  
zaindu beria bakoitzak”.  
Haugaitik “viva” dinot berriz be  
izan bei españarrentzat  
baita be dinot “Gora Euzkadi!”,  
geuria da ta geuretzat.



## Errepublikari txistu

(Anonimoa)

“Ai, ai, ai mutila”

Bandoen legea indartsu errotu zen Euskal Herrian. Karlistak eta liberalak, errepublikarrak eta monarkikoak, zuriak eta beltzak, gorriak eta urdinak... Hemeretzigarren mendetik zetozen antagonismook hogeigarren mendean sutsu jarraitu zuten. Hona Iparraldeko anonimo bat nola burlatzen den Errepublikaz:

Errepublika zer den  
ez dakienari  
huna nik hots egia:  
orok nausi nahi.  
Ai, ai, ai, mutila,  
orok nausi nahi.

Liberté, égalité  
eta fraternité  
hiru gezur horiek  
egiak balire.  
Ai, ai, ai, mutila,  
egiak balire.

Lehengo denboretan  
errege batto zen.  
Orain oro errege,  
hori duk hoi zuzen!  
Ai, ai, ai, mutila,  
hori duk hoi zuzen.

Ni ere errege nauk,  
bainan ez aisian  
bertzeak gainean ta  
ni bethi azpian.  
Ai, ai, ai, mutila,  
ni bethi azpian.

Kadet astaputz oihuz  
ari zuan behin:  
"Errepublikak gaitik  
egin oro berdin".  
Ai, ai, ai, mutila,  
egin oro berdin.

Ihardetsi zitzaion:  
"Errepublikak to!  
Hi segurki hagoka  
bethi berdin asto".  
Ai, ai, ai, mutila,  
bethi berdin asto.

Errepublikanoak,  
Oi! Zein kargutiar!  
Heien politika da:  
"hi khen eta ni jar".  
Ai, ai, ai, mutila,  
hi khen eta ni jar.



## Gizon bat (Anonimoa) "Ijituarenak"

Elizaren eraginez, bertsolaritza liberalen kontra maizago agertu bada ere, ez zen alderantzizkorik falta. Espainiako gerrako ministro, monarkizale eta gero frankista izan zen Gil Robles aipatzen den hamaikako sortan, Bizkaiko anonimo batek herriko karlista bat honela bedekatzan du:

Gure herrijen dago gizon bat ministrue esateutsena  
txindi asko ta aziendatan oso aberatsa dana.  
Azino askon jaubie ei da adin argidun gizona  
entzute handijje deko berorrek dalako gizon zuzena.

Jakitturijjek erantzi deutsoz buruko ule guztijjek  
errespetaua dala dirudi bere soñeko janzkijjek.  
Mosuak bere biribilek dauz gaiñera bizar zurijjek  
ikusmen ona dirudijjenak dekoz, bai, bere begijjek.

Bake zalie dala diñue gure herrijen berori  
herritarrentzat mesedegiñe ezer txarrik ez iñori.  
Kokot ederra deko berorrek perretxiko bat dirudi  
Gil Roblesegaz buztertuteko gizon egokijje hori.

Alfontso Karlos bidien ei da zaldi zurijjen ganian  
laguntasuna ez deu faltako hona etortzen danian.  
Lizarragaren antzeko asko badagoz gure herrian  
harek be hona etorri baino hoba deu egon Austrian.



## Nork egin du gure galde (Basarri)

*“Mendizaleak aurrera”*

Gerrak tristea izan behar du, ezta? Batez ere, etsaiek bizirik harrapatu bazaituzte. Edo lan bortxatuetan enterratu bazaituzte, Espainian “trabajadoreak” izeneko destino madarikatuan bezala. Ba, ez dirudi hain tristea izan behar zuenik, Basarrik egoera hartan kantatzen zituen bertso hauetan, behintzat:

Nork egin du gure galde?  
Aiako Harritan gaude  
baina beti bezain trebe.  
Lanean gogoz aritzen gera  
soldatarik jaso gabe  
berrehun nagusi badaude  
gure artaldean jabe  
guk umore ona halare.

Hotzaldi eta goseak  
ta barau egun luzeak  
guk baditugu paseak.  
Gorputzari on egiten nunbait  
gailur hontako haizeak  
nola baigeran gazteak  
sano dauzkagu esteak  
ez egon arren beteak.

Goizean ekin lanari  
egunsentian pozgarri  
txori guztiak kantari.  
Ezin atera gentzake orain  
inoiz adinbat izardi  
erdietan gaude geldi  
ahal degunean exeri  
zertan nekatu gehiegi?

Oiartzungo neskatilak  
musu-gorri biribilak  
izan zaitezte abilak.  
Zertan maitatzen dituzute, ba  
kaleko ume zirtzilak?  
Aitxulein daude trankilak  
saltzeko dauden opilak  
paregabeko mutilak.



## Gosetea (Iturzaeta)

*“Daukat hizketako gaia”*

Noizbait amaitu zen hondamen hura ere eta galtzaileen artean ez zegoen argi ondorengoa ez ote zen gerra bera baino zitalagoa izango. Beste gaitz guztiez gainera, Iturzaeta azpeitiarrak honela kantatu zuen gosetea:

Orain daukagun klasia  
etengabeko gosia  
jan da edateko amorratzen da  
urruti gauzia.  
Lepua ez dago hezia  
galtza-ipurdi lasia  
mami gutxi ta kolore txarra  
sudurra luzia.

Andria kara hasarrez  
gizona bajaran indarrez  
lan askorekin ezer gutxi ta  
gobiernu txarrez.  
Umiak eske negarrez  
ta emateko ezer ez  
mundu honetan ondo bizitzen  
ez da oso errez.


Langile asko nekian  
ari da jornal merkian  
gauza galesti pentsatu nola  
paga leitekian.  
Ezin zuzendu kolpian  
hemen gaude gerrapian  
ogi zuririk ez da izango  
hau dagon artian.



## Franco xar hori (Azpillaga) "Gaueko izar"

Gerra oste luzean, Franco ez zen armada guztien "generalisimoa" bakarrik. Gotzaingaiak, konkordatua bide, bere onespena behar izanaz gainera, santutegiak bedeinkatzen eta katedralak inauguratzen zituen, 1972an Gasteizkoa bezala. Hurrengo egunean, Azpillagak Gipuzkoako Zerainen honela deskribatu zuen elizkizuna:

Franco xar hori zan lenengua  
 ministro danak atzian  
 kanonigua sartu zan gero  
 Jesukristoren trantzian.  
 Jesus zerutik etorri balitz  
 eta elizan sartzian  
 danak ostikoz botako zitun  
 Jerusalemgo antzian.



## Disekatuta (Agirre)

*“Joxe Agirrerena”*

Franco, azkenik, 1975. urteko azaroan hil zen, ez hiltzori oso luzean iraun gabe, denen desesperaziorako. Hilda zeukatela ere esaten zen. Halako saio batean, Jose Agirrek ale bitxi hauxe kantatu zuen:

Hori ez dala hiltzen ta zuek  
zertan kezkatzen zerate?  
Bizi edo hil neroni behintzat  
inportarik etzait bate.  
Horrek ez digu ia egingo  
ez mesede ta ez kalte  
joan daneko hogeï urtean  
disekatuta daukate.



## Munduko gerra (Etxahun Iruriko) *“Ai zer plazerra”*

Espainiako gerra zibilean, euskaldun iheslari eta erbesteratuen babesleku izan zen Iparraldea. Munduko Gerrak bera ere bete-bete harrapatu zuen 1940 ingurutik aurrera. Etxahun Irurikok honela kantatu zuen, hunkigarriro, sofrikario bortitz hartatiko itzulera:



Ai zer plazerra bost urten burian  
sor-lekurat itzultzia  
ene herria, etsitu nian  
zure berriz ikustia.  
Aski sofritud nik anitzetan  
desir nukian hiltzia  
ez bazintudan hain maite uken,  
o Ama Eskual Herria.

Anitzen gisa partitu nintzan  
etsaien gudukatzer  
gogua bero bihotza laxu  
eta kasik alagera.  
Ez bainakien orano ordian  
zer zen amaren beharra  
hari pentsa eta biga bostetan  
aiher zitazun nigarra.

Erresinola kantari edder  
libertatian denian  
baina tristuran higitzez doa  
kaiola baten barnian.  
Gu ere, ama, hala ginduzun  
tirano haien artian  
zure ametsa kontsolagarri  
tristura handirenian.



## Afrikako gerrarenak

(Paulo Yanzi)

*“Ai hori begi ederra”*

Espainiako gerra zibila eta munduko gerrak ez ziren izan, zoritxarrez, Euskal Herriak jasan zituen bakarrak. Espainiaren mende eta mendearen hasiera aurretxoan, Kubako gerra izan zen eta aurrerago Afrikako Gerra, besteak beste, Paulo Yanzi nafarrak honela kantatu zuena:

Bertsuak jartzen naiz hasi  
kopiatuaz ta guzi  
nahi dituenak ikasi.  
Afrika aldera oraingo aldian  
gazteri haundiak duazi.  
Diote adierazi  
ez dela joan behar ihesi  
amak negarrez daudezi.

Arruit, Zeluan ta Nadorrak  
hango odol galtze gogorrek  
gorriturik daude lurak.  
Hango kontuak aditu eta  
bat hartutzen du beldurrak.  
Ez dira noski gezurrak  
hegaztiak ta txakurrak  
txupatzen hilen hezurak.

Horra gerran ondoria  
gure gazteri floria  
desastre hortan eroria.  
Triste hoientzat eskatzen dizut  
zeru ta lurren jabia  
beste munduan gloria  
zorion paregabia  
Afrikan baino hobia.



## Frentetik frentera (Iñaki Alkain eta Amezketako artzaina) "Xaltoren doinua"

Gerrak ikaragarriak direla jakinik, nahi al duzue orain pasarte harrigarri bat entzun? Espainiako gerra zibilean, Iñaki Alkain urnietarra abertzaleen aldetik dabil eta Amezketako artzain bat Francoren aldeko frentean. Nonbait, elkarren berri jakinik, Bergara eta Soraluze arteko Basalگو mendi gainean, gau ilunaren ezkutuan, eta bi lubakiren artean, bertsoan egiteko biltzen dira, halako distantzia batera beti ere, Amezketarrak ez baitu bere bururik ezagutarazi nahi. Alkainek bi tolosar daramatza lagun edo botilero eta Elustondo izeneko batek ira edo garo artean linterna koxkor baten argitara takigrafatzen ditu bertsoak.

**ALKAIN:**

Amezketako artzaia, entzun jakin beharrean nago artzai gehienak diran bezela zu ez al zera izango. Zure izen ta apelidua ikastea nik nahiago nola dituzun zuk, beraz, hoiek ez al didazu esango?

**ARTZAINA:**

Alkain gaztea, nola liteke galdera hori neretzako? Esango nuke baldin bakarrik balitzake zuretzako. Ematerikan nere izena ez daukat besterentzako zuk bezelaxe nik gogo gutxi daukat oraindik hiltzeko.

**ALKAIN:**

Artzai jatorra zu zinadela lehendabiziko egunez gau guzi hartan nere bihotza jardun zitzaidan esanez nola bertsoa kantatzen zendun bihotzan agintasunez gaur ere pozik ni jardungo naiz zurekin anaitasunez.

Ez zuten, ba, berriz elkartzerik izan. Bi tolosarrak gero Otxandioko Olaetako Santa Kruz mendian hilko ziren. Alkain bizirik itzuli zen gerratik, baina amezketar artzaiaren arrastorik ez omen zuen inondik atera ahal izan.

**ARTZAINA:**

Alkain, nerekin ez dezu izango ezertan ere nahastea euskaldun jator eta garbia zeradela ikuste'a. Penagarria hau da bakarrik alkarri tiroz hastea ezer kulparik izan gabetan tiroka bata bestea.

**ALKAIN:**

Artzai jatorra, azkenekoan notizi bat det zuretzat nik bezelaxe pena izango dezula iruditzen zat. Bihar goizean Bizkai aldera joan beharra daukat behintzat agur sendo ta anaitasuna izan euskaldunarentzat.

**ARTZAINA:**

Alkain gaztea, nik aditu det honela nere artean zuk diozunez bihar goizetik ez gerade alkartean. Ongi badakit ni triste-triste zu ingurutik joatean ez al gerade gu alkartuko biok halako batean?



**Sigma**  
(Basarri)  
"Kalejira"

Espainiako gerra zibilak Hego Euskal Herrira ilunpe luzea eta itoa ekarri zuen. Nekez eta bildurpean hasi zen burua jasotzen, eta kutsu politikoa izan zezaketen aipamenik xumeenak -euskara bera ere bai- moztan zitzaizkion. Bertsolaritzak makinei kantatzeko, behintzat, ez zuen debekurik aurkitu. Hona Basarrik SIGMAren propaganda nola egingo zuen:

Hain da jostailu zoragarria  
geure eskuetan hartzean  
uzteko gogorikan ez dator  
behin josketari heltzean.  
Udaberrian bizi leizkenak  
hor daude negu beltzean  
hau gertatzen da SIGMA makina  
arkitzen ez dan etxean.

SIGMA jabeak irripar gozo  
nunahitan agertutzen du  
bere menpeko pitxi haretzaz  
inora ezin da aldendu.  
Familitako urre kutxa da,  
hau burutikan ez kendu:  
SIGMA makina erosten dunak  
zoriona erosten du.




## Ameriketako panpetan (Otaño)

*“Mutil koxkor bat”*

Gerrara edo gerratik ihesi ez ezik, emigrazioak ere ez zuen euskaldun gutxi munduz mundu zabaldu. Atzerriko bertsolarien artean, Pedro Mari Otaño dugu goren. Argentinako ombuan Euskal Herriko zuhaitz maiteen ordezkoa aurkitu zuen:

Txabol ondoko ombu laztana  
maitatzen zaitut gogotik  
eta bihotza erdibitzen zait  
joatian zure ondotik.  
Nere burura ekartzen dezun  
oroimen gozuagatik  
zure itxura nahi det ikusi  
ez dizut eskatzen frutik  
ni hemen bizi naizen artian,  
arren egon zaite zutik!

Nere lagunik maitatuena  
Ombu laztana, zu zera  
hargatik nator zure kolkora  
ni malkuak isurtzera.  
Iduriturik naramazula  
atariko intxaurpera  
beti izango zaitut goguan,  
baina joan nahi det ostera  
Euskal Herriko zuhaizpe hartan  
nere hezurrak uztera.



## Beranteko urrikiak

(J.B.Otxalde)

“Musde Tiraz”

Oraingo afrikarrekin bezala, orduan ere baziren trafiko sareak, euskaldun asko, engainatuta, gero han gogotik bezain alferriek damutzeko eraman zituztenak. Bidarraiko Otxalde famatuak, mendearen hasiera baino lehentxoago, ez zuen gezurrean kantatzen:

Bizi nintzena bakean  
ait-amekila batean  
tratulari bat sartu zerautan  
uste gaberik etxean  
ez baitzuen nahi handik atera  
ni saretan sar artean.

Diru goseak nerama  
utzirik ait-eta ama.  
Arrosapetik athera orduko  
arantzetan atzemana  
nahigabetan bethi bizi da  
aiter behatzen ez dena.

Sartu naiz azken buruan  
gogoa naukan lekuan.  
Neure etxean nituelarik  
atseginak inguruan  
orai hemen naiz dohakabea  
nehor gabe desterruan.



## Hau nahibagia

(Jose Manuel Etxeita)


*“Zazpi alaben gai dan oihala”*

Jose Manuel Etxeita, Bizkaiko mundakar nabigatzailea, ez zen emigratzaile behartsua. Itsasoan kargu handiak edukirik, Manilako alkate izateraino heldu zen. Herri eta aberri minak hari ere barkatzen ez, ordea! Begira, mendearen hasiera inguruan, nola kantatzen duen bere amarekin gertaturiko kasu erdiragarria:

Urte askotan aurkitu nintzan atzerrietan lanian  
amatxu neukan aldendu barik nik beti gogamenian.  
Gehitu gurarik diru apurrak jarri naitian bidian  
eta amatxu ikusi daidan bixirik dagon artian.

Neure herrira guztiz alaitu hurreratu nintzian  
hileta itzal-itzal bat joian hobietara bidian.  
"Nor da hil dana?" –gixon bateri nik itandu neutsanian  
harritu nintzan neure amatxu zala jakin nebanian.

Negarra gogoz dariodala eta txapela eskuan  
jarraitu neban hobietara neure amaren onduan.  
Bihotz hilagaz guztiz artega negar ta negar nenguan  
orduak lako atsekaberik ez neban ixan munduan.



## Markanokin Ameriketara

(Anjel Markano)

*"Haiziak bidali du"*

Ez uste, hala ere, Euskal Herritik aldegin behar guztiak tristeak izan zirenik. 1930ean, Eibarko Anjel Markanok eta lagunak, eta lau urte geroago "Berrizko eta Zaldibarko abiadoreak" izenekoek, mundualdi ikusgarria prestatu zuten, eurek egindako hegazkinean, hain zuzen. Ihauterietan bidaia fantastiko hauxe kantatu zuten kalez kale, aparatuari bultzaka:

Kanta berri batzuek dituguz atara  
aitzen emoten gatoz herri honetara.  
Arioplanuan juateko asmuetan gara  
bihar urtetzen degu Ameriketara.

Hamasei lagun gera guztiok argiak  
ez gaitu bildurtuko hotzak ez euriak.  
Bizirikan etortzen bagera erdiak  
kontauko dizueguz guk hango berriak.

Bihar urtetzen degu guztiok aidian  
ikusiko gaituzu agurka bidian.  
Ondo urtetzen besku daukagun idian  
ez gera etorriko beste urte bian.

Nueva Yorkera guaz lehenengo runbuan  
handik Brasileraino berriz hurrenguan.  
Gero Polo Nortera hirugarrenguan  
bazterra bilauko degu badago munduan.

Polo Norten ei daude hain paraje baltzak  
harako egin dituguz aproposko galtzak.  
Eskuetan harturik galtzairuzko lantzak  
galdu ez gaiezen han hotzak edo hartzak.

Igotzen badegu handik mendi tontorrera  
begiratuko degu zer dan beste aldera.  
Biderikan ikusten badegu aurrera  
laster helduko gera mundu baztarrera.

Aparatu hau eiten urte bian lana  
hortan gastatu degu geure diru dana.  
Biderako ere, berriz, bihar degu jana  
horreatik eskatzen degu errialtxo bana.




## Ameriketatik osaba Jose Bernardori (Otaño) “Gure baitango”

Amaitu zaizkigu munduz munduko ikusgarriak eta atzerri gordinera gatoz,  
non, berriz ere, herri-minaren distantziak Euskal Herri txikia ia maitasun  
inposibleraino handitzen duen Otañoen gogoan. Entzungo duzuen bigarren  
ahapaldia bertsoaritzak sortu duen alerik zirraragarrienetakoa da:



Lehenago hainbat aintzat hartzen ez ginuzen gauza guziak  
hainbesteraino edertzen ditu orain ezin ikusiak.  
Euskal Herriko mendi ta zelai, ibai, harkaitz ta sasiak  
behinere ezin ahaztu litzake haien artian haziak.

Urruti zaude eta zaila da ni zugana iristia  
honenbeste nahi dizun batentzat zer bizimodu tristia!  
Alaipide bat bakarra daukat ametsetan sinistia  
zu ikusteko, noiznahi asko det nere begiak ixtia.



## Gure Errenteri

(P. Zabaleta)

*"Hamar urteko nintzan"*

Euskaldunak ez ziren izan biziaren bidean, bizibide baten bila, euren lurretik atera ziren bakarrak. Urte gutxian, Euskal Herria atzerritik, batez ere Espainiatik, etorritako jende uholdez gainezkatu zen, Pello Zabaletak, Errenteriarri buruz, nostalgiaz kantatzen duen moduan.

Orain berrogei urte gure Errenteri  
kasik esan liteke etzala ageri.  
Urtetikan urtera handitzen da ari  
ordutikan honera Parisa dirudi.

Hau da Errenteria orduan ez zena  
gaur ate gehienetan denda ta taberna.  
Nunahi sartu liteke kanpotik barrena  
badago nun gastatu irabazten dena.

Notiziak baditut Amerikatikan  
euskaldun asko baita joana hemendikan.  
Lur hortaz oroitutzen dira oraindikan  
nonbaiten bizi behar ez da besterikan.

Agur, Amerikano, Euskal Herrikuak  
hemendik joan zintaten gazte sasoikuak.  
Zuen bakante hoiak daude hornituak  
kanpotikan etorri zaizkigu nahikuak.




## Arbola bat bazan (Arrese-Beitia) “Vivaldirena”

Atzerriko urruntasunak sorterriaren xarma idealizatua minberatuki kantatzen bazuen, hemen gelditzen ziren euskaltzale eta abertzaleei ez zitzaien falta zapaltzen zuten lurra malkotzeko motiborik. Mendearen hasieran, Felipe Arrese-Beitia otxandiotarra izan zen bilakaeraren sentiera goibela, foruen galera batik-bat, indartsuen aldarrikatu zuenetako bat:

Arbola bat zan Bizkaian bere, neure anaia laztanak  
zeinen azpian pozez beterik egoten ziran asabak.  
Kerizpe zabal hartan jarririk eginda euren batzarrak  
buztarri baga lasai ta libre bizi ziran bizkaitarrak.

Isildu ziran neskatxen kankak, mututu artzain txistuak  
zelai zabal ta jolaslekuak gaur dira basamortuak.  
Arroak behera itsasoruntza doiazan errekatxuak  
gau eta egun txilioz dagoz: ai, gara Gaztelakuak!

Bakarrik dakust pozgarritxo bat euskaldun amen fedia  
benturaz honek bigundu leike Jaungoikozko haserria.  
Eta zerutik jatsi barrero galdu zan libertadia  
mundua mundu bizi dakigun Gernikako Arbolia.



## Orain bi mila urte inguru (Txirrita)

*“Orain bi mila urte inguru”*

Hogei bat urte geroago, Txirrita izango zen foruen galerari eta euskal lurraldetasunari formulazio zehatza eta herritarrena emango ziona. Erromatarren aurreko garaitik hasi eta bere mundualdira arte, harrigarria da Euskal Herriaren historiaz nolako batasun kontzientzia garatzen duen. Bertso hauetan izenik gabe aipatuko duen foru kentzailea, Txirritaren gogoan hain fatala, Canovas del Castillo espainiar politikaria da.

Gure izeben amen amonen osaben aiten aitonak  
hemen fueruak defenditutzen ibilitako gizonak.  
Bertan bataila irabazita gero Erromara juanak  
Oktabianok galdu zituen berebiziko lagunak  
haundi gaiztuak diran tokian pagatzen du txiki onak.

Arrosa baino zabalagoko gure zazpi probintziak  
baratza eder bat bezela zeuden guziak lorez jantziak.  
Lau Espainian morroi gaudenak hiru han ditu Frantziak  
gizon gaizto bat dala medio hondatu ziran guziak  
beste munduan ikusten badet eman biaizkat graziak.

Kolka txarraren azpian gauden txito urrikalgarriak  
hamarretatik bost hiltzen dira, beste bostak elbarriak.  
Pizti gaiztuen bildurrez beti gora begira jarriak  
indar gutxiko gorputzak eta suspiriuak larriak  
kastigu honen mendean bizi gera gaur Euskal Herriak.



## Mugaz erdibituriko

(Xalbador)


*“Txiki handiratu”*

Lurraldetasuna puskatzeak Euskal Herri osoaren kontzientziari hain gorrotagarri zaion muga erdibitzailea ekarri zuen. Txirritaren bertsoetatik beste berrogei urtera, Xalbadorri Ataunen gai hau eman zioten: “Orain, Xalbador, mugaz erdibituriko gure Euskal Herri honi bertso bat”.

Zutik jarrita otoizka nago,  
ene lagunak, zerura  
haundien mende dagon ttipiak  
beti badu arrangura.  
Eskatzen dautzut izan zazula  
herri ttipien ardura  
eta txukatu mendien negar  
den Bidasoako ura.

Mugak, luzera, kontzientzia bera ere pitzatu ohi du, euskaldunak "frantses" eta "espainol" gisan bereiztea normal iruditzeraino. Elgetan, bazkalondo batean, beste zenbait bertsoari artean, Xalbador eta Mattin zirela, Egileorrek agurrean kantatu zuen bukatzea komeniko zela, "frantsesek" joateko presa zutela eta. Oker batzuk barkatzeko borondaterik ez zeukan Xalbadorrek jarraipen hauxe eman zion: ("Ume eder bat")

Nik ere agur eta esker on  
bildu zeraten orori  
bai eta ere ohar ttipi bat  
"frantsesaren" kontu horri.  
Gutaz tronpatu dela behar dut  
argitu Egileorri  
hemendik ez da frantsesik joanen  
handik ez baita etorri.



## Hoien odola

(Xalbador)  
"Erreguetan"

Noizbait ere, azken arnasa gainean sumatu zuen espainiar diktadoreak beste mundura eskuak beterik eraman nahi zituen, nonbait, eta hil aurretxoan, bost heriotz zigor sinatzeko eta betearazteko kemen katolikoa izan zuen. 1975. urteko irailaren 27an, Euskaltzaindiak Iparraldean egin bilkuran, Xalbador ere gomitatua zen. Bat-batean, berria heldu zen Francok Txiki eta Otaegi eta FRAPeko beste hiru kide fusilatu zituela. Alfontso Irigoienek Xalbadorri bertso batzuk eskatu zizkion eta bat hauxe kantatu zuen:

Hain hitz ederrak errex lerratzen dira gure ezpainetan  
errexkiago sendi delarik zauria gure barnetan.  
Hoi en arimak Jaunak har bitza betiko zero gainetan  
eta isuri duten odola sar bedi gure zainetan.



## Muñoz Grandes

(Lopategi eta Azpillaga)

*“Uso zuria”*

Diktadura frankistaren azken aldera, Euskal Herriaren errebeldia politikoa bertsolaritzan ere plazaratu zen, 1970. urteko irailaren 27an bezala. Gipuzkoako Aldaban, Lopategi eta Azpillaga egun osorako zeuden. Bezperan, Muñoz Grandes, Espainiako militarren buru nagusia, hila zen. Auzoa goian, mendi aldera egonik, saio luzean zehar, Azpillagak kantatu zuen:

- AZP. Lehenago sarri entzuna  
goian dago osasuna.  
Aginteak e behian beti du egundoko erantzuna  
zuk zein kaletan bilauko dezu hemengo askatasuna.
- LOP. Bada hainbat gauza edar  
zuen herri hontan zehar.  
Baina euskaldunok aspaldi hontan ez daukagu suerte lar  
"Gora Euskadi" kantatutzero mendira etorri behar.
- AZP. Lur hau behar da garbitu  
nahi bada ongi segitu.  
Muñoz Grandes e atzo gabeen hil zala degu aditu  
nahiago nuen lagunak ere batera eraman balitu.
- LOP. Hainbeste dira oindio  
badute hainbat jenio.  
Muñoz Grandesez hemen utzi du bere hainbat ondorio  
baina San Pedron aurrekaldean pistolak ez du balio.
- AZP. Ez zala izan umila  
ezta gerrero debila.  
Nik opa diot bihotz-bihotzez zeruan gerta dedila  
baina handikan etorri bedi bere lagun zaharren bila.
- LOP. Ez zuen ona bizitza  
falta du zeruko giltza.  
Militar jende zabar horiek lagun baitzuten eliza  
nahiago nuke Morcillo ere berakin juan balitza.



## Morcillo (Uztapide)

*"Mando baten gainean I."*

Azken bertsoan entzun duzuen Morcillo, Casimiro Morcillo kardinala eta Madrilgo artzapezpikua zen, lehenago Bilboko gotzain izana. Franco baino frankistago, honen hilzoria ere bere aitabitxiarena bezain luzea izan zen, prentsan egunero haren egoera kliniko larria albiste zela. Saio batean bertsolari batek "morcillo" deituratik odolkien hitz-jokoa egin zuen. Tartean zen Uztapidek, txanda zegokion bertsolariari mikrofona eskutik kendu eta "hau utzi neri" esanik, kantatu zuen:

Orain esango dizut xuabe-xuabe  
eta jarriko zaitut jakintzaren jabe.  
Madril aldera joan ez bazina hobe  
odolkirik ez dago txerria hil gabe.



## Sardina zaharrari

(Jose Agirre)

*"Txanbergo jauna"*

Urte haietan, zuzen ezin-esanak zeharbideak aurkiarazten zituen, eta sarritan ez dakigu eurok ez ote diren adierazpiderik zuzenenak. Zumaian, 1970 inguruan, Jose Agirrerri hiru bertso kantatzeko eskatu zioten "sardina zaharrari". Hona hemen bigarrena eta hirugarrena:



Sardina zaharren zalea naiz ni izatez amorratua  
negu batean jaten bainago marka danak borratua.  
Azkenerako gelditu nitzan eztarria urratua  
bainan sardinzar klase batentzat nik badaukat gorrotua.

Egunen baten gu zapaltzeko asmoak hartu zituzten  
horregatikan hoiek ez ditut begi onetan ikusten.  
Pentsatzen nago azkenerako geu jango ote gaituzten  
hoiek ez dakit gatza emanda noiz jarri behar dituzten.



Canovas  
(Txirrita)  
*"Hil da Canovas"*

Francoren prekurtsore ospetsua izan zen Canovas del Castillo ez zuen izan, laurogei urte lehenago, Franco bezala berez hiltzeko zorterik. Santa Agedako bainuetxean, gorputz-arimen osasun dohatsuan harrapatu zuen Angiolillo italiar anarkistak. Gizona ondo horniturik joan zen beste mundura, Txirritak kantatzen zuenez:

Hil da Canovas, joan da Canovas  
pikaro gaizki hazia  
galdu zituen ifar garbiak,  
jarri du trumoi nahasia.  
Galdu zituen fueruak eta  
Jangoikoaren grazia  
galdu zituen bere lagunak,  
galdu du bere bizia!

Canovas Francoren prekursore jo badugu, oraingoagatik ez dugu Canovasen hainbeste esango, baina 1966ko Bizkaiko Txapelketaren finalean, Arregik San Inazioaren figura bere alde hartu zuenean, Muniategik erantzun zuen:

San Inazio militarra zan  
eta arretaz aditu  
gugatik eta herrian alde  
ez zuan asko sufritu.  
Bera zala ta bera ez zala  
erdera gailen gelditu  
hobe genduan Ejertziuak  
euskeraz egin balitu.



## Canovasen señoari (Txirrita) “Hil da Canovas”

Canovasen emazte alargunak ere izan zuen, segurrenik Txirrita ezagutu gabe, beronen alerik jenialenetako bat inspiratzeko ohorea:

Hiru relejo, hiruna kate,  
hiru mailakin bakoitza  
buruan berriz hiru korona,  
petxuan hiru orratza.  
Hiru dobleko amoriua,  
tximista bezin zorrotza  
hiru tirotan utzi zizuten  
zuri senarra hilotza  
hiru ezpatak zulatzen dute,  
Señora, zure bihotza.



## Guardia zibilei

(Lazkao Txiki)

*"Balkoi hontatik kalera"*

Honelako bertso bat irabazteagatik, ia-ia merezi du alarguntzeko bildurrik ez edukitzea. Ez dakigu Txirrita benetan penatu zen, edo Lazkao Txikiren buruan zer zebilen, Mutrikun gai hau entzunda: "Aurten Indurainen urtea izan da. Joxe Migel berrehun kilometroko igesaldia daramana eta Olaso tropelaren buru datorrena", hasiera bitxi hau eman zuenean:

Entzun dezute gai jartzaileak  
garbi eman duen nota  
horren gainean bertso batzuek  
orain nahi ditugu bota.  
Hainbat denbora eskapatu det  
ta nago ni erdi jota  
guardia zibilei iges egiten  
lehendik ohituta nago-ta.

Ez zen, ez, beti ihesi ibilia. 1968an, Txabi Etxebarrietaren aldeko meza bolada famatu hartan, Lazkao Txikik ere gau bat edo beste kuartelean egin behar izan zuen. Hurrengo saioan, "zer moduz barrualde horretan" galdetu ziotenean, eliz-kanta oso ezagun bati bi hitz aldaturik erantzun zuen:

Kristorenak  
Kristorenak gera.  
Kristorenak hartuta  
etorri gera.




## Joseba Arregi (Lopategi) *"Ia guriak egin du"*

Joseba Arregi zizurkildarrari ez zioten utzi, Lazkao Txikiri bezala, barrualdeko berri kontatzeko aukerarik, 1981ean, komisariako torturen ondorioz hil zenean. Bere jaiotetxe ondoko plazan jaso zioten oroitarria ere laster agertu zen, gau batez, txikituta. Jon Lopategik plaza hartatik hurreko jaialdi batean kantatu zuen:

Adiskide baten bila  
gentozen gaur Zizurkila.  
Non da gure mutila  
torturaturik hila?  
Gudari eta martiri  
Agur, Joxe Arregiri.

Zutik da gure herria  
odol zahar eta berria.  
Zure oroitarria  
enparantzan jarria  
bota ziguten zakurrak  
irentsi ditzala lurak!

Zure amets eguzkia  
odol gorritan bustia.  
Prezios garestia  
baina herri guztia  
askatu edo zutik hil  
zurekin dago Zizurkil.



## Guziak bat (Elizanburu)

*"Mila bat eta zortzi ehun"*

Buka dezagun, ibileraren laburbiltze gisan, ehun urteko azken jauzia eginez, mendearen hasiera aurrera. XIXgarren mende azkenera, alegia, non Elizanburu saratar handiak Euskal Herriaren batasuna kantatu baitzuen, gaur egingo genukeen bezain argi, nahiz eta, beharbada, edertasun handiagoz. Hemen agertzen diren "kantabreak" eta gero Txirritak erabiliko dituen "Kantabria" eta "kantabresak" Kantauri eta Kantauriarrak dira. Ez dira, beraz, oraingo Santander eta oraingo kantabroak, Euskal Herriaren eta euskaldunen sinonimoak baizik. Eta, beste gabe, Elizanbururekin agurtzen zaituztegu, eta eskertzen zuen etorrera eta arreta zintzoa.



Gure aitaso kantabreak mende zaharretan  
gu orai gisa hedatuak alor hautan beretan.  
Anaiak ziren "guziak bat" mendien bi aldetan  
Jainkoa xoilki zen errege eskualdun etxoletan.

Erreka zepo ziloetan bizi bada belea  
toki goretan arranoak eiten du ohatzea.  
Hala du mendi bizkarretan eskualdunak etxea  
biek handizki dutelakotz maite libertatea.

Jakintsun batek, aditu dut, nonbait erran duela  
"Eskualdun izan baino lehen gu erdaldun ginela".  
Ixilik hago ahal baduk, to! Jakintsun ergela  
ez erran guri arranoa beletik heldu dela.

Nola birundan arbolari da segitzen itzala  
bakotxak hala sorlekua beti maita dezala.  
Anaiak gaituk eskualdunak orai ere, oxala,  
jartzen bagine "guziak bat" lehenago bezala.